



Modako komunikazio eta marketing prestakuntza

2016/12/14
10:00-13:00
Talent House.
Donostia.

PROGRAMA

10:05 Marketing digitala

Zer da marketing digitala?, Zer izan behar dugu kontuan gure estrategia lortu nahi dugun helburuarekin bat eginez planifikatu ahal izateko? Ikuspena, markaren ezagutza, etengabeko elkarreragitea eta zuzeneko eta zeharkako salmentak aurkitzeko erremintak aurkeztuko dizkizugu.

10:55 Sareko erakusleihen handiko aktoreak

Ingurune digitala globala da, eta ez du mugarik; beraz, influencer fenomenoarekin sarea erakusleihen bilakatu da, eta bertan joera orokorrenak ezagutu ditzakegu. Saltokiek elkarri eragiteko modua ez ezik, marken, diseinatzaileen eta erabiltzaileen arteko harremana ere aldatzen joan da, eta horrek eragina izan du erosteko ohituretan.

12:00 Sare sozialak

Gizarte-sareen munduan, badira orokorrak diren plataformak eta, baita, modaren industrian ardaztutako berariazkoagoak direnak ere. Haiek aztertzea eta ezagutzea komenigarria da gure marketin- eta komunikazio-estrategiara ondoen egokitzen den gizarte-sarea aukeratzeko.

12:50 Ondorioak eta amaiera

HIZLARIAK



Myriam Aranburu

Fashion Olé enpresako komunikazio-arduraduna

Fashion Olé moda-komunitateak moda maite duen jendea eta profesionalak dendekin, markekin eta influencer-ekin konektatzen ditu, txikizkako merkataritzan erostea sustatzearekin batera. Halaber, joaten zaren leku guztietan tokiko markak eta diseinatzaileak ezagutzeko aukera eskaintzen du.

